

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren adierazpen instituzionala, azaroak 25, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta

*Foru Exekutiboak ostiral honetan, 12:00etan, Nafarroako Jauregiaren
aurrean egingo den elkarretaratzean parte hartzera animatu du gizartea*

Asteazkena, 2018.eko azaroak 21

Nafarroako Gobernuak, gaurko bilkuran, honako adierazpen
instituzionala onartu du:

*“Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko
Egunean, Nafarroako Gobernuak aitortu nahi du emakumeek emakume
izateagatik sufritzen duten indarkeria dela giza eskubideen urraketarik
ohikoena munduko gizarte guztietan; baita gurean ere.*

Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak, emakumeen kontrako
indarkeriari aurre egitekoak, aitortzen du eskubidea dagoela emakumeen
aurkako indarkeriak eragindako kaltea konpontzeko, bai banakoari
dagokionez bai emakumeen taldeari dagokionez. Genero indarkeriak
eragindako kalteak konpontzea administrazioen betebeharra dugu eta
konpentsazio ekonomikoa, erasotzailea kartzelaraztea eta neurri penalen
edo bestelako neurrien ezarpena dakar. Baina haratago ere joan behar
du. Konponketa horrek aitortu behar du emakume horiek ez zutela zertan
jasan bizi behar izan duten egoera, egoera bidegabe eta onartezina,
guztioi dagokigun arazo sozial batek sortutakoa. Beraz, eraldatu egin
behar ditugu testuinguru diskriminatzaile eta misoginoak, emakumeen
aurkako indarkeria ahalbidetzen dutenak.

Gaurko egunean, erakunde publiko gisa dugun erantzukizunetik,
omenaldia eta aitorten publikoa egin nahi diegu emakumeen aurkako
indarkeriaren biktimei eta esperientzia horretatik bizirik atera direnei.
Biktimak dira emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeraren aurka
altxatu direlako, eta ez dutelako onartu mendetasunezko eta
otzantasunezko toki bidegabe bat betetzea, historian barrena gizonek izan
duten aginpide sozialaren azpian. Bizirik atera dira eta, horregatik,
berrindartze prozesu bati ekin diote, jasandako indarkeria gainditzeko.
Gizartea hertsatzen dugu haien aitortpena egitera, sozialki zor bat
dugulako emakume haiekin. Gogora ekarri eta aitortpena egin nahi diegu
honako hauei: azken 20 urte hauetan Nafarroan hil diren 18 emakumeei,
bizitzeko eskubidea erauzi baitzitzaie; haien seme-alabei, amazurtz
geratu baitziren; familiei eta hurbileko inguruari, eta egindako minari.

Gainera, Nafarroako Gobernuak bere konpromisoa agertu nahi du:
jarraituko du lan egiten bai Nafarroako Erakundeak Koordinatzeko III.

Akordioaren esparruan, bai 14/2015 Foru Legea garatzeko Ekintza planaren eta Plan sektorialen bidez; emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak prebenitzen, berriz ere halakorik egon ez dadin. Halaber segituko du baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen eta hobetzen. Horien bidez kaltea konponduko da, bizirik atera diren emakumeak eta haien seme-alabak berrindartu daitezten; indarkeriazko esperientziak ikusgai jarriko dira, eta esperientzia horien egia erakutsiko; erraztuko da emakume bakoitzak erreparaziorako eskubidea erabiltzea eta justizian sarbidea izatea; azkenik, lagunduko zaie ahalduntzeko eta berbiktimazioa ekiditeko prozesuetan. Betiere ahalegina egingen da indarkeriaz baliatzen diren gizonen dagokien zigorra izan dezaten.

Erakundeen konpromisoak eta gizartearenak batera joan behar dute. Horregatik, Nafarroako Gobernuak gizartea animatzen du egun honen inguruan indarkeria arbuiatzeko egingen diren ekitaldietan parte hartzera eta egoera honetan dauden emakume guztien aitorpena egitera eta haiek babestera, guztiok lana egin dezagun gizarte solidarioa, zuzena eta emakumeen aurkako indarkeriarik ez duena lortzen”.